

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Onestea eta kobratzea 2025eko landa eta hiri ondasun higiezinaren eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga eta jarduera ekonomikoen gaineko zerga

Erroldak onetsi eta gero, ondoren zerrendatzen diren udal zergen 2025eko ordainagiriak kobratzeari ekingo zaio:

- Landa eta hiri ondasun higiezinaren (OHZ) eta ezaugarri berezietako ondasun higiezinaren gaineko zerga.
- Jarduera ekonomikoen gaineko zerga (JEZ).

Ordainagiriak 2025eko urriaren 30etik 2025eko abenduaren 31ra bitartean, egun biak barne, ordaindu ahal izango dira borondatezko epean.

Ordaintzeko era.

1. Finantza erakundeetan helbideratutako ordainketak: ez da ordainketa abisurik bidaliko.

— Iruña Okako Udalak zuzenean zordunduko du zergaren zenbatekoa zergadunak adierazitako kontu korrontean:

- OHZ, abenduaren 11n.
- JEZ, abenduaren 18an.

2. Helbideratu gabeko ordainketak. Kobratzeko abisuak bidaliko dira, eta toki hauetan ordaindu ahal izango dira:

* Udalaren bulegoetan, astelehenetik ostiralera, jendea atenditzeko ordutegian: 09:30etik 14:00etara.

- * Kutxabanken eta Laboral Kutxaren bulegoetan.
- * Banku transferentzia bidez.
- * Eusko Jaurlaritzaren ordainketa pasabidearen bidez.

2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, borondatezko epean ordaindu ez diren ordainagiriak Arabako Foru Aldundiaren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziara bidaliko dira, premiamendu bidez kobra daitezen.

Iruña Oka, 2025eko irailaren 3a

Alkate-lehendakaria

MIGUEL ÁNGEL MONTES SÁNCHEZ